

LEHEN PEREDIKÜA

Egün hon adixkideak
saldoan zidee bildü
« Beñateren » pastoral
eskentüren deizüegü

1. JELKALDIA

Jelki haurraren familia

Beñat

Aitañi gaüzaz entzüten
diat en'aita jeikitzen
Argia piztüt gabe da
ixil ixila elkitzen

Aitañi

Loa diat franko arin
et'ez diat ez entzüten
Nik ere gazte denboran
ametsak nütü(a)n egiten

Beñat

Ez diat ametsik egin
ta segür nük hi hizala
Bena norat hoa gaüzaz
erran ezak otoi aita

Aita

Jeiki nük artegiala
jo(a)n jinaren egiteko
Axuriak dira sortzen
zonbaiten egoskazteko

2. JELKALDIA

Jelki haurrak

Beñat

Gaüzaz üsü ene aita
da jeikitzen joaiteko
Bena ez ditadak nahi
erran zeren egiteko

Nahi nuke gaüzaz behin
jarraiki norbaitekin
Lagüngo behar nuke
jakiteko zer egiten düan

2. Joana

Bizpa hiru bagüntüzke
bai prest hire lagüntzeko
Bena etxekoetarik
nola gira ezkapiko?

3. Pette

Ez inkieta lagünak
mementoa atzamanen
Ihorere ohartüt gabe
parada dügü ükenen

3. JELKALDIA

Herriko bestak

Jiten direnean. (1957) Attuli

Jiten direnean herriko bestak, bazterretan boztarioa
zaharrak, gazteak bezala, hürüntik prestatzen ari dira ;
Ororek emaiten beren plana, uhurez egin dadin herrian besta
ikertzen azkar denez kesa haren grado egiten fresa.

Eliza besta goizan goizik, kanbera ohetik jeikirik
ixeatzen püntü harditik entrexat eta frisatekin.
Gero arropa hoberenekin, fularra lepoan, buneta sartürik
herriko plazan dantzan fierik, deskantxatzen eskualdün gazteak.

Kantore denboran aita ezkapatzen da

4. JELKALDIA

Jelki: iheslariak lagünzalearekin eta aita (Johaine)

Lagünzalea

Johaiñe ekarten deiat
gaurko ihesle saldoa
Kasü orotan gorderik
beidirade soldadoak

Johaiñe partitzen da saldoarekin

Jelki 4 haur eta artzainak

Maia

heben dütügü artzainak
eta ardi бүрү beltzak
Tzintzarradaren soinüak
aidatzen artzainen botzak

Artzainen kantorea

Ai bortüa!

5. JELKALDIA

Jelki lehenik Johaiñe eta iheslariak gero aleman soldadoak

Jelki 4 haurrak eta gorderik egoiten

Hantz

Atzamaiten zütüegü
ihesle, igaraileak
Jüdio, tzigana, komüniste
oro dütügü etsaiak

Güdüka bi saldoren artean, alemanak garaile

Iheslari bat

Otoi jinko hona lagünt
gitzazü memento hontan
Libertatea dügü galtzen
Hitleren aztaparretan

6. JELKALDIA

Jelki herritarrak eta haurrak trostaz heltzen

Beñat

Otoi hel, bertan, otoi hel!
en'aitaren libratzera
Alemanek bahitürik
zaizte haren salbatzera

Herritar bat

Anple hadi pottikoa
kontezak agitü dena
Non ta nola gertatü den
eta ikusi düana

Maia

Ahargo mendian düe
alemanek atzaman
Ihesleak beitzütüan
lagüntzen bortü xendetan

7. JELKALDIA

Jelki aleman soldadoak presonerekin eta herritarrak

Herritar bat

Aldi hontan dükezüe
zaflaldi hon bat üzküan
Barkoxtarrak beti nausi
beitira beren lürretan

Güdüka, herritarrak garaile

Ihesleara

Gaur ez dügü azki hitzik
züen oroen eskertzeko
Bizia zor deizüegü
ez dügü ez ahatzeko

Beñat

Aita orai badakiat
gaüz zer düan egiten
Gure segretüa dükek
ahal deiat hitzemaiten

AZKEN PEREDIKÜA

Haurren kuraje handiak
bai eta sasitarrenak
Gure herritik ohiltü
aleman soldadoak

Esker mila deizüegü
so'gile maitagarriak
Hon har etzazüe gure
agur bero beroenak